



ARNAS POLIGRAFIA

ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

Proba **DIAGNOSTIKO** bat da, eta **ARNASKETA** aztertzen du **LOALDIAN zehar** (lotan gauden bitartean). Artatu gabeko gailu eramangarriak erabiltzen ditugu, **POLIGRAFO** izenekoak.

Proba eskatzen da **LOALDIKO ARNAS TRASTORNO** bat, **LOALDIKO APNEA**, adibidez, izan dezakeelako **susmoa handia** dagoen pazienteetan. Proba erraza da, eroso eta kostu efektibokoa.

NON ETA NOIZ EGITEN DA ARNAS POLIGRAFIA?

Proba hau, normalean pazientearen **ETXEAN** egiten da, lo egitera ohituta dagoen lekuan.

Proba-egunean bizitza normala egitea gomendatzen da, eta edari alkoholduak edo bizigarriak (kafea, koladun freskagarriak) ez edatea. Medikazioren bat hartzen baduzu, ez utzi hartzeari.

Loaren Unitatean Poligrafoaren datuak jasotzeko hitzordua emanaz gero, **SANTIAGO OSPITALE**ra jo beharko duzu. **B pabiloiko 2. solairua**. Artatua izateko, itxaron ezazu **itxarongelan**.

Loaldiko Unitateko teknikari batek gailua nola erabili eta nola jarri azalduko dizu. Gainera, **argibide-orri bat** ere emango dizu, hala nola azterketa gaueko loaldiaren kalitateari buruzko **galde-sorta bat** eta zure datu klinikoak arretan eta ikerketan erabiltzeko baimen informatua emateko agiria. Azkenik, hurrengo egunean gailua **non itzuli** esango dizu.

Higiene-neurriak eta azterketarako erraztasuna izateko, gailua **arroparen gainean jarri behar** da: elastikoa edo pijama. **Hurrengo egunean jaikitzen zarenean**, gailua adierazi zaizun moduan kendu behar duzu eta poltsan sartu. **Bete** loaldiaren kalitateari buruzko galde-sorta eta gorde biak poltsan.

Itzuli poligrafoa LOALDIKO UNITATEAREN IDAZKARITZAN 08:00etatik 08:30era.

EMAITZAK:

Proba egin ondoren, **erregistroa aztertuko** da ekipo informatikoak erabiliz, eta proban lortutako emaitza izanda, probaren **txostena** egingo da.

- Loaldiko arnas trastorno adierazgarria **BAZTERTZEN** BADUGU, zuk **EZ DUZU TRATAMENDURIK BEHAR**. Emaitzen **behin betiko txostena** igorriko zaizu, eta bertan emaitzak eta lo hobeto egiteko gomendioak agertuko dira.
- Loaldiko arnas trastorno adierazgarria **BAIEZTATZEN** BADUGU, zuk **TRATAMENDUA BEHAR DUZU**. **AURREZ AURREKO KONTSULTA** rako, gutun bidez bidaliko dizugu hitzordua.
- Emaitzekin **ZALANTZARik** badugu edo proba **BALIAGARRIA EZ** bada, beste hitzordu bat emango zaizu telefonoz, **ARNAS POLIGRAFIA ERREPIKATZEKO** edo beste proba batzuk egiteko.

Probari buruzko edozein zalantza izanez gero, Loaren Unitateko idazkaritzarekin harremanetan jar zaitezke, telefono-zenbaki honetan: **945 007 290 (08:00etatik 15:00etara)**.